



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko abenduaren 11

150. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, 2018ko gastuen aurrekontuan 35.546.085 euroko kreditu berezia ematekoa, urriaren 10eko 19/2018 Foru Legean aurreikusitako inbertsio finantzarioki jasagarriak egiteko (2. or.).
- Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (4. or.).
- Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Baimen-eskaria, Natural Climate Systems SA (Miyabi) sozietate publikoaren desegite eta likidazioari ekiteko prozedura hastekoa (15. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehia-keta bidez betetzekoa. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2018ko gastuen aurrekontuan 35.546.085 euroko kreditu berezia ematekoa, urriaren 10eko 19/2018 Foru Legean aurreikusitako inbertsio finantzarioki jasangarriak egiteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2018ko azaroaren 28an hartutako Erabakiaren bidez, honako foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: "Foru Lege proiektua, 2018ko gastuen aurrekontuan 35.546.085 euroko kreditu berezia ematekoa, urriaren 10eko 19/2018 Foru Legean aurreikusitako inbertsio finantzarioki jasangarriak egiteko".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Aipatu Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, 2018ko gastuen aurrekontuan 35.546.085 euroko kreditu berezia ematekoa, urriaren 10eko 19/2018 Foru Legean aurreikusitako inbertsio finantzarioki jasangarriak egiteko

ZIOEN AZALPENA

Inbertsio Finantzarioki Jasangarriei buruzko Plana onetsi zen urriaren 10eko 19/2018 Foru Legearen bidez.

Foru lege horren I. eta II. Eranskinetan adierazita daude zein diren inbertsio finantzarioki jasangarrien kontzeptuan egin beharreko jarduketak, eta lehentasuna ematen zaie, horien artean eta orain, Toki Inbertsioen Planekoei eta Banda Zabaren Plan Zuzendarikoei.

Ogasuneko Ministerioak nahitaezkoa den baimena eman duenez inbertsio horiek egiteko, bidezkoa da horien exekuzioari hasiera ematea 2018. urtea amaitu baino lehen.

Horretarako, 2018ko Gastuen Aurrekontuan aurrekontu partida berriak sortzea proposatzen da, eta ondoren horiek 35.546.085 euroekin hornitzea guztira, kreditu bereziaren bitartez.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta aurrekontuan krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, kreditu berezi bat ematekoa.

1. artikulua. Aurrekontu partidak sortzea.

Aurrekontu partida hauek sortzen dira 2018ko Gastuen Aurrekontuan, ondotik ematen diren kodeekin:

Pro	Org	Ek	Funtz	IZENA
070005	05530	6013	467903	IFJ 19/2018 FL Banda Zabalaren Plan Zuzendaria
781000	78310	7600	261611	IFJ 19/2018 FL Zoladura, sareekin
781000	78310	7600	261612	IFJ 19/2018 FL Zoladura, sarerik gabe
781000	78310	7600	261613	IFJ 19/2018 FL Udal ekipamenduak eraikuntzako araudi teknikora egokitzea
781000	78310	7600	456104	IFJ 19/2018 FL Hornidurako, saneamenduko eta euri uretarako toki sareak
781000	78310	7600	459104	IFJ 19/2018 FL Argiteria publikoa
781000	78310	7600	45A203	IFJ FL/2018 Une oro biztanleak dituzten lekuetarako bideak eta biziguneen artekoak

2. artikulua. Kreditu berezi bat ematea.

Kreditu bat ematen da, 35.546.085 euroko zenbatekoa duena, zenbait jarduketa gauzatzeko, zeinak Inbertsio Finantzarioki Jasangarri buruzko Plana onetsi zuen urriaren 10eko 19/2018 Foru Legetik eratorriak baitira, Toki Inbertsioen Planarekin eta Banda Zabalaren Plan Zuzendariarekin lotuta.

Kreditu hori foru lege honen lehen artikuluan aipatzen diren aurrekontu partidei aplikatuko zaie, zenbateko hauekin:

Pro	Org	Ek	Funtz	IZENA	ZENBATEKOA
070005	05530	6013	467903	IFJ 19/2018 FL Banda Zabalaren Plan Zuzendaria	9.840.000 €.
781000	78310	7600	261611	IFJ 19/2018 FL 2018ko EAO Zoladura, sareekin	9.176.115 €.
781000	78310	7600	261612	IFJ 19/2018 FL Zoladura, sarerik gabe	1.044.462 €.
781000	78310	7600	261613	IFJ 19/2018 FL Udal ekipamenduak eraikuntzako araudi teknikora egokitzea	1.377.231 €.
781000	78310	7600	456104	IFJ 19/2018 FL Hornidurako, saneamenduko eta euri uretarako toki sareak	10.342.486 €.
781000	78310	7600	459104	IFJ 19/2018 FL Argiteria publikoa	3.162.913 €.
781000	78310	7600	45A203	IFJ 19/2018 FL Une oro biztanleak dituzten lekuetarako bideak eta biziguneen artekoak	602.878 €.

3. artikulua. Kreditu bereziaren finantzaketa.

Kreditu berezi hori finantzatzeko da "Diruzaintzako gerakina, gastu orokorrak" izeneko 110000 11100 8700 000002 aurrekontu partidaren kargura, 35.546.085 euroko zenbatekoarekin.

4. artikulua. Gastuaren kontabilizazioa.

Kasuko gastu-baimena kontabilizatuko da 2018ko ekitaldiari egotziz inbertsio finantzarioki jasangarrien proiektuak finantzatzeko ezarritako kreditu osoa, foru lege honen babesean sortutako partidetan. Hori ez da oztopo izanen aurrekontu

betebeharrak 2019ko ekitaldian aitortu ahal izateko.

Lehen xedapen gehigarria. Gaikuntza.

Ahalmena ematen zaio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko kontseilariari Inbertsio Finantzarioki Jasangarri buruzko Plana onesten duen urriaren 10eko 19/2018 Foru Legearen II. eranskina aldatzeko. Aldaketa horiek ez dute ezin kasutan ekarriko foru lege horretan ezarritako zenbateko globalaren gehikuntzarik.

Bigarren xedapen gehigarria. Funts-mugimenduak.

Zilegi izanen da funts-mugimenduak egitea foru lege honek sortutakoak diren 781000 proiektuko partiden artean, eta ez zaizkie aplikatuko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritako mugak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan hartuko du indarra.

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2019ko urtarrilaren 4ko eguerdiko**

hamabiak arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2018ko irailaren 6ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektua.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2019ko urtarrilaren 9ko eguerdiko**

hamabiak arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2018ko urriaren 19ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2018ko ekainaren 15eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Legearen xedea.

Testu berria:

“1. artikulua. Legearen xedea.

1. Foru lege honen xedea da familia gurasobakarraren izaera edo gurasobakartasun-egoera aitortzeko baldintzak birdefinitzea, bai eta familia gurasobakarraren titulua —familia-unitatea osatzen duten pertsona guztientzat ematen den dokumentu ofiziala— emateko eta berritzeko prozedura ere; titulu horrek, izan ere, Nafarroako Foru Komunitate osoan izanen du balioa”.

Zioak: Proposamenaren definizioa eta xedea zentratzea.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. apartatuan testua gehitzeko zuzenketa. Legearen xedea.

Testu berria:

“2. Behin hori zehazturik, izaera horri buruzko egiaztagirak jaulkitzeko eta berritzeko prozedurak arautuko dira.

Familia gurasobakarraren aitortzak titulu ofizial bat ematen du, zeinak familia gurasobakarraren izaera egiaztatu eta zenbait onura eta abantaila ematen dituen.

Hurrengo irizpideen arabera, familia gurasobakarren bi kategoria definitzen dira.

Kategoria berezia: bi seme-alaba edo gehiago dituztenak, eta gurasoa edo seme-alaba bat desgaitua den edo lanerako ezinduta daukaten familiak.

Kategoria orokorra: aurreko apartatuan deskribatutako egoeretan ez dauden familiak”.

Zioak: Legeak aurreikusi behar dituen familia-egoerei eta babesaren beharrei erantzutea.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua 3. puntua aldatzeko zuzenketa. Legearen xedea.

Testu berria:

“3. Familia gurasobakarraren titulua familia osatzen duten 14 urtetik gorako pertsonetako bakoitzarentzat emanen da, eta Nafarroako Foru Komunitate osoan izanen du balioa”.

Zioak: Identifikazio pertsonala ahalbidetzea, etxeko kide guztiek banaka abantaila eta onurak hartu ahal izan ditzaten.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

I. kapituluko 3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Xedapen orokorrak. Testua honako honekin ordeztuko da:

“3. artikulua. Familia gurasobakarraren eta gurasobakartasun-egoerako familiaren kontzeptuak.

1. “Familia gurasobakar”tzat jotzen da honako kasu hauetakoren bat aitortua duena:

a) Pertsona batek eta haren ondorengoek osatuta dagoena, Erregistro Zibilean izena emanda badago.

b) Alargun batek edo egoera horren baliokidetzat jotzen den batean dagoen pertsona batek eta horrexek pertsona zenduarekin izandako ondorengoek osatuta dagoena.

c) Pertsona batek eta horren ondorengoek osatuta dagoena, baldin eta guraso-ahala modu eksklusiboan badu.

d) Pertsona batek eta urtebeterako edo gehiagorako harreraren hartuta dauden adingabeek eta harrera iraunkorrean egon diren adindunek osatuta; edo larrialdiko harrerako familiaren izaera daukan pertsona.

2. “Gurasobakartasun-egoerako familia”tzat jotzen da honako kasu hauetakoren bat aitortua duena:

a) Pertsona batek eta haren ondorengoek osatutakoa, pertsona horrek azken horien gaineko zaintza eta jagoletza daukanean. Erregelamenduz ezarriko da familia-unitate batek urtean gehienez zenbateko diru-sarrerak eduki ahal dituen laguntza publikoak eskuratu ahal izateko.

b) Genero-indarkeria pairatu duen emakume batek osatua, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, eta emakume horrek zaintza eta jagoletza dituen seme-alabak.

c) Familia bat non elkarrekin bizi diren guraso-etako bat urtebetez edo denbora gehiagoz askatasungabetuta edo ospitaleratuta dagoen. Kasu horretan, gurasobakartasun-egoerako familia-unitatea osatuko dute ospitaleratuta edo askatasungabetuta ez dagoen pertsonak eta seme-alabek. Erregelamenduz ezarriko da familia-unitate batek urtean gehienez zenbateko diru-sarrerak eduki ahal dituen laguntza publikoak eskuratu ahal izateko.

d) Familia bat non elkarrekin bizi diren guraso-etako batek mendekotasuneko edo baliaezintasun handiko egoera duen, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak aitortutakoa. Kasu horretan, gurasobakartasun-egoerako familia-unitatea osatuko dute mendekotasuneko edo baliaezintasun handiko egoeran ez dagoen pertsonak eta seme-alabek. Erregelamenduz ezarriko da familia-unitate batek urtean gehienez zenbateko diru-sarrerak eduki ahal dituen laguntza publikoak eskuratu ahal izateko.

e) Familia bat non gurasoei zaintza eta jagoletza partekatua aitortu zaien, kontuan hartuta, aitortu ahal zaizkien onurei dagokienez, % 50na jasoko dituztela onura horiek. Erregelamenduz ezarriko da familia-unitate batek urtean gehienez zenbateko diru-sarrerak eduki ahal dituen laguntza publikoak eskuratu ahal izateko.

3. Alargun batek edo horren egoeraren baliokidetzat jotako batean dagoen pertsona batek inongo kasutan ere ezin izanen du lortu “familia gurasobakar” tituluaren onuradunaren izaera, baldin eta epai irmoz zigortua izan bada giza hilketazko delitu batengatik, hilketa horren biktimia izan denean pertsona hura (bikotea edo bikote ohia) zeinarekin ondorengoak partekatzen baitzituen, edo pertsona hura zeinarekin antzeko afektibitate-harreman baten bidez lotuta baitzegoen”.

Zioak: Familia bakoitzaren egoera ekonomikoa kontuan hartu behar da lege honetako onurak gozatzeko.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

I. kapituluan artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa, “familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun-egoerako familiak” izenekoa.

“1. Familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun-egoerako familiak bi kategoriatan sailkatzen dira:

a) Berezia:

Lehena. Bi ondorengo edo gehiago dauzkaten familiak.

Bigarrena. Ondorengo bat daukaten familiak, honako zatidura honek ez dituen gainditzen erregelamenduz ezarritako diru-sarrerak: familia-unitatearen urteko diru-sarrerak, elikagaien pentsoiak barne, zati unitate-kopurua.

Hirugarrena. Ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua edo ezintasun iraunkor abso-

lutua edo mendekotasun handia aitortua duen ondorengo bat duten familiak.

Laugarrena. Ondorengo bat duen familiak, baldin eta familia-unitateko buruak % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-gradua, ezintasun iraunkorra edo mendekotasun handia aitortua badu.

Bosgarrena. Genero-indarkeria pairatu duen emakume batek osatutako familiak, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, eta emakume horrek zaintza eta jagoletza dituen ondorengoak.

b) Orokorra: foru lege honen 3. artikulua baldintzetako bat beteta ere aurreko apartatuan deskribatutako egoeretan ez dauden familiak”.

Zioak: familia gurasobakarraren tituluaren barruan modalitate desberdinak jaso behar dira, onuren eta abantailen izaera ez-subjektiboa kontuan hartuta.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7. artikulua 1.b) I puntua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“I. Nazionalitate espainiarra duten pertsonak: eskatzailearen eta familia-unitateko kide diren 14 urte baino gehiagoko seme-alaben nortasun agiri nazionalaren (NAN) kopia konpultsatua. Nahitaezkoa da organo kudeatzaileari baimena ematea behar diren egiaztapenak egiteko familia-unitatea osatzen duten pertsonen elkarbizitza demostratu behar den kasuetan”.

Zioak: Dokumentazioan eskatutako baldintzen egiaztatzea erraztea. Administrazioaren egiaztatzea onartu egin beharra dago, aitortpena egin eta titulua eman ahal izateko.

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7. artikulua 1.b) II puntuan gehitzeko zuzenketa.

Testu berria:

“II. Atzeritarrak: atzeritarraren identifikazio-bakiaren (AIZ) kopia konpultsatua, edo hura kontsultatzeko baimena, edo familia-unitateko kide

diren pertsona guztien pasaporte edo Erregistro Zibileko hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria. Aurkeztutako dokumentu guztiek indarrean egon beharko dute.

Eta gaztelaniaz ez badago, kopia konpultsatua aurkeztu beharko da, ofizialki homologatua, eta gaztelaniazko itzulpena”.

Zioak: Dokumentazioan eskatutako baldintzen egiaztatzea erraztea.

8. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7. artikulua 1.b) IV puntua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“IV. Familia-unitatea osatzen duten pertsonen erroldatze-ziurtagiria. Nahitaezkoa da organo kudeatzaileari baimena ematea behar diren egiaztapenak egiteko familia-unitatea osatzen duten pertsonen elkarbizitza demostratu behar den kasuetan”.

Zioak: Dokumentazioan eskatutako baldintzen egiaztatzea erraztea. Administrazioaren egiaztatzea onartu egin beharra dago, aitortpena egin eta titulua eman ahal izateko.

9. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7.2.c) artikulua aldatzeko zuzenketa.

“c) Pertsona batek adingabe bat edo gehiago harreran hartzen dueneko kasua, dagokion ebazpen administratibo edo judizialaren bitartez, urtebeterako edo gehiagorako, edo larrialdiko harrerako familiaren izaera edukitzearen kasua. - Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor bat ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa. - Harrerari buruzko ebazpen administratibo edo judiziala, organo eskudunak emana, edo larrialdiko harrerako familia izateari buruzko ziurtagiria, haurren arloko zuzendaritza nagusi eskudunak emana. Dokumentazio hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Foru Komunitateko harrerako familien kasuan. - Erantzukizunpeko adierazpena, honako honi buruzkoa: Guraso-ahalaren eskusibotasuna egiaztatzen duen epaia”.

Testu berria:

“c) Pertsona batek adingabe bat edo gehiago harreran hartzen dueneko kasua, dagokion ebazpen administratibo edo judizialaren bitartez, urtebeterako edo gehiagorako, edo larrialdiko harrerako familiaren izaera edukitzearen kasua. - Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor bat ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa. - Harrerari buruzko ebazpen administratibo edo judiziala, organo eskudunak emana, edo larrialdiko harrerako familia izateari buruzko ziurtagiria, haurren arloko zuzendaritza nagusi eskudunak emana. Dokumentazio hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Foru Komunitateko harrerako familien kasuan”.

Zioak: Azkenengo esaldiak ez dauka zentzurik eta akats bat dela ematen du.

10. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. kapituluaren 7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Familia gurasobakarraren titulua aitortzeko eta jaulkitzeko prozedura Testua honako honekin ordeztuko da:

“7. artikulua. Dokumentazio orokorra, 3. eta 4. artikuluetan ezarritako familia-egoeraren arabera aurkeztu beharrezkoa.

1. Dokumentazio orokorra:

a) Eskaera-inprimakia, behar den moduan beteta.

b) Datu pertsonalen egiaztagiria:

I. Nazionalitate espainiarra duten pertsonak: eskatzailearen eta familia-unitateko kide diren 14 urte baino gehiagoko seme-alaben nortasun agiri nazionalaren (NAN) kopia konpultsatua, organo kudeatzaileari hura egiaztatze baimena ematen ez zaionean.

II. Atzerritarrak: atzerritarraren identifikaziozenbakiaren (AIZ) kopia konpultsatua, edo hura kontsultatzeko baimena, edo familia-unitateko kide diren pertsona guztien pasaporte edo Erregistro Zibileko hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria. Aurkeztutako dokumentu guztiek indarrean egon beharko dute.

III. Familia-liburu osoaren edo familia-liburu osoen kopia konpultsatua edo adopzio, tutoretza edo familia-harrerari buruzko epai, notario-akta edo ebazpen administratiboa.

IV. Familia-unitatea osatzen duten pertsonen errolatze-ziurtagiria, organo kudeatzaileari hura egiaztatze baimena ematen ez zaionean.

V. Erantzukizunpeko adierazpena, seme-alabek OAEAP baino gehiagoko diru-sarrerarik ez jasotze baimena, aparteko ordainsariak barne.

2. Aurkeztu beharrezko berariazko dokumentazioa, aurreko puntuan adierazitako dokumentazio orokorrak gainerakoak.

3.1 artikuluan jasotako familia-egoeren arabera, arestian aipatutako dokumentazio orokorrak gainera:

a) Seme-alabak Erregistro Zibilean guraso bakarrarekin soilik inskribatuta egoteari buruzkoa: Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor bat ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa.

b) Alargunak edo baliokidetzat jotako egoeran dagoen pertsona batek seme-alabekin osatutakoa:

Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor bat (edo izatezko bikote bat) ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa. Hildako aurreko ahaidearen heriotza-ziurtagiriaren kopia, familia-liburuan jasota ez badago.

c) Pertsona batek adingabe bat edo gehiago harreran hartzen dueneko kasua, dagokion ebazpen administratibo edo judizialaren bitartez, urtebeterako edo gehiagorako, edo larrialdiko harrerako familiaren izaera edukitzearen kasua: Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor bat ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa. Harrerari buruzko ebazpen administratibo edo judiziala, organo eskudunak emana, edo larrialdiko harrerako familia izateari buruzko ziurtagiria, haurren arloko zuzendaritza nagusi eskudunak emana. Dokumentazio hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Foru Komunitateko harrerako familien kasuan.

d) Guraso-ahalaren eskusibotasuna egiaztatzen duen epaia.

3.2 artikuluan jasotako familia-egoeren arabera, arestian aipatutako dokumentazio orokorrak gainera:

a) Aitak edo amak seme-alaben zaintza edo jagoletza eskusiboa edo erabatekoa duenean: Erantzukizunpeko adierazpena, bikote egonkor bat ez osatzeari eta beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa.

b) Familia bat non seme-alabak bere kargura dituen amak genero-indarkeria pairatu duen, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoari jarraituz. Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Foru Legearen 4. artikuluan aitortutako arauen araberrako egiaztagiria; horrez gain, salbuespenik gabe, honako hauen txosten teknikoak gehituko dira: 1. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoaren oinarritzako laguntzako gizarte zerbitzuak. 2. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoko osasun zerbitzuak. 3. Osasun mentaleko zentroak. 4. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoko harrera zerbitzuak. 5. Emakumeentzako laguntzarako udal zerbitzuak, arreta integralerako profesionalak dituztenak. 6. Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzailetza.

c) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat askatasungabetuta edo ospitaleratuta dagoenean urtebetez edo denbora gehiagoz: Espetxeak edo ospitaleak emandako egoteari buruzko ziurtagiria.

d) Elkarrekin bizi diren gurasoetako batek mendekotasuneko edo baliaezintasun handiko egoera aitorturik duenean. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak jaulkitako baliaezintasun handiaren ziurtagiria edo mendekotasun handia aitortzen duen ebazpen administratiboa, autonomia pertsonala sustatzearen eta mendekotasunerako laguntzaren arloan eskudun den departamentuak emana.

e) Gurasoen egoera "zaintza partekatua"rena denean. Egoera hori egiaztatzen duen epai judiziala.

a), c), d) eta e) letretako kasuetan PFEZaren azken aitortzea aurkeztu beharko da ere.

3. Aurkeztu beharreko berriazko dokumentazioa, 4. artikuluan ezarritako familia-egoeraren arabera.

a) Ezarritako adina luzatzea, ikasketak direla eta: Arrazoi horrengatik titulu horri eustekoak diren pertsonak egiten ari diren ikasketei buruzko egiaztagiria.

b) % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila: Desgaitasunari buruzko ebazpena, Nafarroako Foru Komunitateko desgaitasunaren arloko departamentu eskudunak emana. Maila eta irautzitate-data agertu beharko dira, kasua bada, edo hari buruz kontsulta egiteko baimena.

c) Mendekotasun handia edo baliaezintasun handia: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak jaulkitako baliaezintasun handiaren ziurtagiria edo mendekotasun handiko egoera aitortzen

duen ebazpen administratiboa, autonomia pertsonala sustatzearen eta mendekotasunerako laguntzaren arloan eskudun den departamentuak emana.

d) Lan egiteko ezintasunaren aitortzea: Lan egiteko ezintasunari buruzko ebazpena, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak emana. Maila eta irautzitate-data agertu beharko dira, kasua bada, edo hari buruz kontsulta egiteko baimena".

Zioak: Diru-sarrerei buruzko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

11. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

"10. artikulua Ebazteko eskumena duten organoak.

Titulua eman edo ukatzeko edo espedientea artxibatze eskumena, kasua bada, familiaren arloan eskuduna den departamentuari esleitzen zaio, eskatzailea erroldatuta dagoen herrikoari; hori, halere, ez da eragozpena izanen eskumen hori abokazioz erabili ahal izan dezan, kasua bada, familiaren arloko eskumena esleituta daukan zuzendaritza nagusiko titularrak".

Zioak: Nafarroa 272 herrik edo toki entitateak osaturiko foru komunitate bat da, ez probintziak.

12. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

"1. Ebazpen espresa eman eta jakinarazteko gehieneko epea hogeita hamar egun balioduneko izanen da, ebazteko eskudun den organoaren edozein erregistroan eskaera sartzen den egunetik kontatzen hasita".

Zioak: Ebazteko gehiegizkoa da hiru hilabeteko epea.

13. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12.3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“3. Banakako txartelak haren titularraren izen-deiturak eta artikulua honen 2. apartatuaren a), c), d), g), eta j) letretan jasotako datuak jaso beharko ditu”.

Zioak: Gure ustez, honako hauek aginduzkoak dira: tituluaren zenbakia; familia gurasobakarreko buruaren izena eta familia gurasobakarreko kideen izenak, beren NANarekin edo AlZarekin; tituluaren eta Nafarroako Gobernuaren ziurtagiria ofizialaren indarraldia. Txartelean ez da sinadurarik behar, zeren eta ez baitu balio ofizialik ematen.

14. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

13.4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“4. Familia gurasobakarraren titulua identifikatzen duen txartela, haren izaera eta kategoria zehazten dituena, bai eta familia gurasobakarra osatzen duten pertsonak ere, eskatzen den une beran emanen da Nafarroako Gobernuaren Familiaren arloaren edo zuzendaritzaren bulegoetan. Familia gurasobakarrean 14 urtetik gorako zenbat kide dauden, hainbat txartel emanen dira”.

Zioak: Horixe bera egiten da familia ugariaren titulua identifikatzen duten txartelek, zeinak Nafarroako Gobernuaren Familiaren arloan dokumentazio osoa aurkezten den une berean ematen baitira.

15. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

15.1 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“1. Oro har, familia gurasobakarraren tituluaren indarraldia zehaztuko du seme-alaba batek 21 urte betetzen dituen egunak, betiere gurasobakartasun-egoera aldatzen ez bada, 4.1 eta 2. artikuluetan zehaztutako baldintzen arabera”.

Zioak: Gurasobakartasunaren izaera da titulu honi arrazoia ematen diona, eta, horrenbestez,

berekin dakartzan onura eta abantailak ematen dituena. Baldintzak eta egoera pertsonalak aldatzen badira, tituluaren indarraldia aldatuko da. Seme-alabak adindun bilakatzeagatik ez ezik, etxeko familia-egoera askotarikoa izateagatik ere.

16. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

15.2.a) artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“2. Familia gurasobakarraren tituluak indarraldi berezia izanen du honako kasu hauek: a) Ikasketengatik berritzen diren tituluen kasuan, tituluak urtebeteko indarraldia izanen du”.

Zioak: Ikasketetarako matrikulak urtero egiten dira ikasturte baterako. Familia ugarien tituluen kasuan, adibidez 21 urtetik gorako seme-alabak dituzten kasuan, familiak titulua urtero berritu beharko du, ikasturtearen hasieran, 21 eta 26 urte bitarteko seme-alabak egiten dituen ikasketa ofizialen matrikularen egiaztagiriak aurkeztu ahal dituzten.

17. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

15.2.f) artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“f) Familia-unitatearen diru-sarreraren arabera denean kategoria, urte bateko indarraldia izanen du”.

Zioak: Indarraldia bi urtekoa izateak ez du zentzurik. Familia-unitatearen diru-sarreraren menpean badago, urtebetekoa izan beharko luke, zeren eta zergen aitortzen urtebetekoak baitira, urtero aurkezten direlako.

18. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

20. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. Egiaztapen-ahalmenak.

Testu berria:

“20. artikulua. Egiaztapen-ahalmenak.

Familiaren arloko eskumenak dituen departamentuak edozein unetan egiaztatu ahalko du familia gurasobakarraren titulurako eskubidea mantentzeko inguruabarrek eta baldintzek beren horretan dirautela, eta tituluaren ezeztatzea ebatzi eta jakinarazi ahalko du.

Familia gurasobakarraren izaera aitortu eta hari eusteko, seme-alabek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Honako kasu hauetakoren batean egotea:

Lehena. 21 urte baino gutxiago izatea.

Adinaren muga hori 25 urtera arte luzatuko da, baldin eta ziklo eta modalitate desberdinetako unibertsitate-hezkuntzako ikasketak egiten badira, goi mailako lanbide heziketako ikasketak egiten badira, unibertsitatekoen edo lanbide heziketako en maila parekideko ikasketa espezializatuak egiten badira edo lanpostu bat lortzera bideratutako ikasketak egiten badira, behar den baimena duten ikastetxe publiko zein pribatuetan.

Bigarrena. Desgaitasun bat edukitzea.

Lege honen eraginetarako, desgaitasuna duen pertsonatzat hartuko da ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua aitortua duena.

Hirugarrena. Lanerako ezintasun bat aitortua edukitzea, adina edozein dela ere.

Foru lege honen eraginetarako, lanerako ezintasuna duen pertsonatzat hartuko da lanerako gaitasuna murriztua duena ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiaren pareko gradu batean.

b) Aurreko ahaidearekin bizitzea.

Ulertzen da bereizte-aldi iragankorrak ez duela hausten gurasoaren eta seme-alaben arteko elkarbizitza –nahiz eta bereizita egote hori atzerrira aldi baterako joatearen ondorioa izan–, baldin eta bereiztearen arrazoia bada ikasketak egitea, lana, tratamendu mediko bat, errehabilitazioa edo antzeko beste arrazoi batzuk, horien barne direla ezinbesteko kasuak, aurreko ahaidearen edo seme-alaben askatasungabetzea edo adingabeen erantzukizun penalari buruzko araudiari jarraikiz zentro batean barneratzea.

Foru lege honen eraginetarako aurreko ahaideztat aita edo ama hartuko dira.

Aurreko ahaidearen baldintzaren parekidetzat jotzen da norberaren tutoretzapean edo familia-

harreran seme-alabak edukitzea, betiere norberarekin eta norberaren kontura bizi badira.

c) Ekonomikoki aurreko ahaidearen mendekoa izatea.

Mendekotasun ekonomikoa dagoela jotzen da seme-alabetako bakoitzak ez duenean jasotzen, urteko kopuruari begiratuta, urte bakoitzean indarrean den OAEAP-ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik gorako diru-sarrerarik, aparteko ordainsariak barne.

Zioak: Legearen eskubide eta betebeharrak aplikatzerakoan gardentasuna izateko printzipioa dela eta”.

19. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

“Familia gurasobakarraren titulua duten familientzako onurak eta abantailak” izeneko kapitulu berria gehitzeko zuzenketa.

“1. Hezkuntza arlo neurriak.

a) Familia gurasobakarren kideek lehentasuneko tratua izanen dute, aplikatzekoa den araudian administrazio eskudunak zehazten duenaren arabera, honako esparru hauetan:

– Hezkuntzaren arloko bekak eta laguntzak ematea, bai eta liburuak eta gainerako material didaktikoa eskuratzekoak ere.

– Ikasleak haur hezkuntzako zentroetan eta funts publikoekin ordaintzen diren ikastetxeetan onartzeko araubideko puntuazioa.

b) Unibertsitate-hezkuntzaren babes-ekintza

Nafarroako Gobernuak erregelamenduz garatuko ditu familia gurasobakarren unibertsitate-hezkuntzarako laguntzak. Familia horiek beka bereziak izanen dituzte irakaskuntzako, joan-etorrietako eta ostatuko gastuak ordaintzeko.

a) Tasetako eta prezioetako salbuespenak eta hobariak.

Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez garatuko du familia gurasobakarrentzako salbuespenen eta hobarien sistema bat, gizarte-erretiroetako, aterpetxeetako, tokiko kanpalekueetako eta aisiako jardueretako tarifetan, bai eta Nafarroako Administrazio Publikoen menpekoak diren eta foru erkidegoan garatzen diren kultur-ondasunetarako eta kiroleko eta aisiako jardueretarako sarbidean ere.

Sistema hori aplikatuko zaio, era berean, funtzio publikora sartzeko hautapen-probetako tasen ordainketari.

b) Garraio publikoko eta eskola-garraioko hobariak

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan familia gurasobakarrentzako hobari batzuk aurreikusiko dira garraio publikoa eta eskola-garraioa erabiltzeko.

2. Neurri sozialak eta osasun-arlokoak

Gobernuak familia gurasobakarrentzako laguntzak edukiko ditu ortodontziako, entzumeneko, oftalmologiako, ortopediako, psikologiako, pedagogiako edo etxez etxeko laguntza zerbitzuetako tratamenduetarako.

3. Etxebizitza arloko neurriak

a) Familia gurasobakarrentzat, Nafarroako Gobernuak erregelamenduz babes ofizialeko etxebizitzetarako erreserba bat ezarriko du, desgaitasuna duten pertsonentzako finkatutakoaren antzekoa, haien ezaugarriak eta azalera erabilgarria zehaztuta.

b) Babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazioetan, zeinetan aginduzkoa den deialdi publikoa ateratzea eta baremoak aplikatzea, berariaz puntuatuko da eskatzailea familia gurasobakarra izatea.

c) Nafarroako Gobernuak arautuko du familia gurasobakarrei honako hauetan hobariak ematea:

– Lurraren gaineko kontribuzioa lehen etxebizitzarako.

– Maileguetako amortizazio- eta interes-kuotak, babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzak eskuratzeko.

– Maileguetako amortizazio- eta interes-kuotak, etxebizitzak zaharberritzeko.

4. Tributu-arloko babes-ekintza

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, familia gurasobakarrei onura fiskalak bermatu beharko dizkie, haien egoera berezia kontuan hartuz, eta familia- eta guraso langileen familia eta lana bateragarri egitea erraztu beharko du.

Onuren zenbatekoa ezartzeko, kontuan hartuko dira zerbitzu bakoitzaren funtsezko izaera eta ezaugarriak, bai eta kategoria hori arautzen duen artikuluan familia gurasobakarrentzat ezarritako kategoriak ere.

Gainera, Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du hala administrazio publikoek nola enpresa pribatuek onurak eta abantailak ezar ditzatela familia gurasobakarrentzat”.

Zioak: Familia gurasobakarraren tituluak ematen dituen onurak eta abantailak ezartzea.

20. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bakarra aldatzeko eta testua gehitzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Lehen xedapen gehigarria.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, onurak eta abantailak ezarriko ditu familia gurasobakarraren titulua duten familientzat; horretarako, berariazko laguntza ekonomikoak ematen ditu, eta hezkuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren, garraioaren eta familientzako tratamendu fiskalaren esparruetan laguntza ematen du, eta lana eta familia bateagarri egitearen arloko neurriak ezarriko ditu”.

“Bigarren xedapen gehigarria.

Hezkuntza arloko neurriak: 0 urtetik aurrera eta unibertsitateaz kanpokoa zein unibertsitatekoa. Hobarien sistemak, gizarte-etxeetako, aterpe- etxeetako, tokiko kanpalekuetako eta aisiako jardueretako tarifetan, bai eta Nafarroako Administrazio Publikoen menpekoak diren eta foru erkidegoan garatzen diren kultur-ondasunetarako eta kiroleko eta aisiako jardueretarako sarbidean ere. Garraio publikoaren eta eskola-garraioaren arloko hobariak, Foru Komunitateko familia gurasobakarrentzako kideentzat. Familia gurasobakarrentzako berariazko baremoa, liburutarako, eskola-materialerako eta jantokietarako laguntzak eta bekak emateko, eta liburuak, ostatu-gastuak eta joan etorriak ordaintzeko.

Neurri sozio-sanitarioak: 0-6 urteko haurrak dituzten familia gurasobakar guztientzako laguntza ekonomikoa. Osasun-arloko babes-ekintza, Nafarroako Osasun Sistemak estaltzen ez dituen tratamendu berezietako gastuak estaltzeko.

Etxebizitza arloko neurriak: Familia gurasobakarrentzako babes-ekintza, berariazko babes ofizialeko etxebizitzaren erreserbarako eta baremorako, erosketa- nahiz alokairu-araubidean. Lehen etxebizitzarako lurraren kontribuzioaren hobaria; babes ofizialeko eta prezio tasatuko etxebizitzak eskuratzeko edo ohiko etxebizitza

tzarako zaharberritze-lanetarako maileguetako amortizazio- eta interes-kuotetarako hobariak.

Ohiko etxebizitza alokatzeko laguntza zabalduko da kideetako bat, bikotekidea edo ezkontidea, familiaren etxebizitzatik alde egin behar izan gabe, pilamendu-baldintzetan bizitzeko alde zuretik baldintza bete behar gabe.

Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak: Lan-eszedentziak eta -baimenak, bai eta laneko lizentziak eta ordutegiak egokitzea ere.

Nafarroako Foru Komunitateak onura eta abantailak sustatuko ditu familia gurasobakarraren titulua duten familientzat —esate baterako, hobia-riak eta laguntza ekonomikoak— bai administrazio publikoen eremuan, bai enpresa pribatuen eremuan. Mugagabeko kontrataziorako Gizarte Segurantzaren kuotetarako hobariak emanen dira; kontratazio publikoetako plantillaren kuotaren erreserba; edo seme-alaba kontatzea lan publikoaren eskaintzako lanpostuen deialdian.

Neurri fiskalak eta laguntza ekonomikoak: Zerga kenkariak familia gurasobakarrarentzat, seme-alabak zaintzeagatik. Seme-alabengatik gutxieneko salbuetsia igotzea. Familia gurasobakarrarentzako eszedentziagatik laguntzak igotzea”.

Zioak: Zuzeneko laguntzak, onurak eta abantailak familia gurasobakarren beharrezan egokitzea, horietan etxeko buruan pertsona bakarra dagoenean.

21. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bakarra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“Familia gurasobakarraren titulua duten familiek lege honetan aitortutako onura eta abantailak izanen dituzte, bai eta administrazio publikoen esparruan eta enpresa pribatuen esparruan aitortzen zaizkien gainerakoak ere”.

Zioak: Testua egokitzea abantailak eta onurak jasoko dituen beste kapitulu bat gehitzea proposatzen duen zuzenketari.

22. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapenetatik lehena aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Azken xedapenetan lehenbizikoa. Zerga-neurriak eta erregelamenduzko garapena.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari foru lege proiektu bat igorriko dio, zeinean familia gurasobakarrak babestu eta sustatzeko neurri fiskalak jasoko baitira, familia horien fiskalitatea eta tratamendu fiskala hobetzeko.

Nafarroako Gobernuak sei hilabeteko epean emanen ditu foru lege honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamendu-xedapenak”.

Zioak: Familia gurasobakarren Foru Legeak babes bat behar du zuzenketen bitartez seme-alabak dituzten familientzat sartzen diren laguntzez eta pizgarri fiskalez haratago.

23. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Legearen titulua aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa”.

Zioak: Familia gurasobakarra esaten denean, gurasoei buruz ari da, eta halakotzat hartzen dira bai aita, bai ama.

24. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Testu berria:

“Familia gizartearen oinarria da, garapen pertsonalerako eta sozialerako instituzio nagusia baita. Bizikidetzaren gunea da, kideen arteko harreman parekideetan oinarritua, eta haietan topatzen da garapen sozial eta afektiborako gune

egokia, bai eta adingabeen sozializatorako eta hezkuntzarako ardatz nagusia ere”.

Zioak: Espainiarren % 98,7rako familia da instituzio garrantzitsuna, baita adiskideen, lanaren eta diruaren gainetik ere.

25. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko bigarren lerroaldean gehitzeko zuzenketa.

Testu berria:

«Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua xedatzen du botere publikoek familiaren babes sozial, juridiko eta ekonomikoa ziurtatzearen betebeharra dutela, bai eta seme-alabei babes integrala ematearena ere. Botere publikoek nahitaez bermatu behar dute zama gehien dituzten familien aukera-berdintasuna; halakoak dira seme-alaba txikiak dituztenak eta familia ugariak eta guraso-bakarrak; halaber, laguntza eman behar die beren kargura seme-alabak dituzten familiei bazterkeriaren aurka eta gizarte bazterketaren arriskuaren aurka borrokatzeko eta amatasun eta aitatasun arduratsuaz baliatzea errazteko, adingabearen interes gorenaz zainduz».

Zioak: Haurren eta nerabeen babesa, sustapena eta parte-hartzea betebeharrak dira. Beren adina dela eta, populazio-talde ahula da.

NBERen 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik 1989ko Haurren Eskubideen Konbentziora izan da horrela, eta azken horretan jaso zen haurrak bere ingurune naturalean, familian, hazteko eskubidea duela, eta botere publiko gisa dugun erantzukizuna da familiei babesa ematea.

26. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa zioen azalpenean, bosgarren lerroaldearen ondoren.

Testu berria:

“Familia gurasobakarrek presentzia irabazi dute azken urte hauetan, eta gehien hazi diren familia-motetako bat izatera ere iritsi dira.

Bizikidetasuna dela-eta gero eta dibertsitate handiagoa dago. Biztanleen Bizitza Baldintzen Inkestaren arabera, etxerik ohikoena bikoteak eta seme-alabek osatzen dutena da. Baina gehien ugaldutako diren etxe-motak guraso bakarrekoak eta pertsona bakarrekoak dira.

INE 2017ko datuen arabera, honako hau da Nafarroako etxeen egitura:

Bikotea seme-alabekin, % 34,12; pertsona bakarreko etxea, % 26,9; seme-alabarik gabeko bikotea, % 21,1; gurasobakarreko etxeak, % 9,08; elkarren artean familia ez diren pertsonen familia-gunea, % 3,7; bi familia-gune baino gehiago, % 1,4”.

Zioak: Biztanleen Bizitza Baldintzen Inkestako erreferentziako datuak erabiltzea, bai eta Nafarroako Etxebizitzetako buruzko Inkesta Jarraituari buruzko Estatistikako Institutu Nazionalaren 2017ko azken datuak ere.

27. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Legearen zioen azalpena, I., II. eta III. kapituluak eta xedapen gehigarri bakarra aldatzeko zuzenketa.

“Familia gurasobakarrak” edo “gurasobakartasun-egoerako familiak” aipatzen den bakoitzean.

Testu berria:

“Familia gurasobakarrak”

“Gurasobakartasun-egoerako familiak”

Zioak: Familia gurasobakarra esaten denean, gurasoei buruz ari da, eta halakotzat hartzen dira bai aita, bai ama.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Baimen-eskaria, Natural Climate Systems SA (Miyabi) sozietate publikoaren desegite eta likidazioari ekiteko prozedura hastekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko abenduaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, NASUVINSA-Navarra de Suelo y Vivienda SAREN izenean eta hura ordezkatzuz, zuzendari kudeatzaile gisa, eskari bat aurkeztu du, zeinaren bidez adierazi baitu Natural Climate Systems SA (Miyabi) bazkide bakarra den NASUVINSAREN borondatea dela hasiera ematea Natural Climate Systems SA (Miyabi) sozietate publikoaren desegiteari eta likidazioari ekiteko prozedurari.

Kontuan hartuta 2016ko martxoaren 14ko 11/2016 Lehendakaritzaren ebazpenean xedatutakoa (38. NPAO, 2016-03-18koa), zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortzeari buruzko Foru Legeko 12.1 artikulua aipatzen dituen sozietate-eragiketak baimentzeko jarraitu beharreko prozedura arautzeko Lehendakaritzaren ebazpena, honako hau ERABAKI DA:

1. Agintzea eskari hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.
2. Ekimena Foru Araubideko Batzordeari igortzea, hura eztabaidatu eta bozka dezan.

Iruñean, 2018ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Baimena eskatzea, Natural Climate Systems SA (Miyabi) sozietate publikoaren desegite eta likidazioari ekiteko prozedura hasteko

José María Aierdi Fernández de Barrenak, NASUVINSA-Navarra de Suelo y Vivienda SAREN

izenean eta haren ordezkari gisa, zuzendari kudeatzaile gisa jardunez, Iruñeko notario Rafael Unceta Morales jaunak 2015eko urriaren 22an egiletsitako eskritura publikoaren arabera –haren protokolo 1519 zenbakia duena– egintza honetan jarduteko behar adina ahalmen dituela, AZALTZEN DU:

NASUVINSAREN borondatea dela hasiera ematea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SMP izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12. artikuluan jasotako prozedurari, zeinak jasotzen baitu Nafarroako Parlamentuak aurrez baimena eman behar duela Natural Climate Systems SA sozietate publikoaren desegiteari eta likidazioari ekiteko.

Zehazki, sozietatea desegin eta likidatu nahi da, bazkide bakarrak –Navarra de Suelo y Vivienda SAK– hala erabakita, eta haren estatutu sozialetan 28. eta 29. artikuluekin bat.

Arestian esandako guztiagatik, ESKATZEN DUT

ESKATZEN DUT

Nafarroako Parlamentuak baimena eman dezala Natural Climate Systems SA sozietate publikoaren desegite eta likidazioari ekiteko prozedura hasteko.

Eta hauxe eskatzen da Iruñean, 2018ko azaroaren 22an, eta horren kopia igortzen zaio Nafarroako Gobernuako Lehendakaritzari, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SMP izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, artikulua horri abuztuaren 7ko 28/2013 Foru Legeak emandako idazketaren arabera.

Zuzendari kudeatzailea: José María Aierdi Fernández de Barrena

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera –deialdia bertako lehendakariaren 2018ko azaroaren 6ko ebazpenaz onetsi zen–, behin eskabideak aurkezteko epea bukaturik, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Izangai bazterturik egon ez denez, bidezkoa da zerrenda hau behin betikotzat onestea.

Horrenbestez, lehendakaritza honek ERABAKI DU:

Lehenengoa. Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat

lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

a) Onartuak:

Contreras López, José

Sebastián Labayen, Ildefonso

b) Baztertuak:

Inor ez.

Bigarrena. Xedatzea ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Erakundearen web orrian argitaratuko dela.

Iruñean, 2018ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga